

ARGUDIO TESTUA

- Zer da argudio testua? Gai baten inguruan egileak ematen duen iritzia eta arrazoi sorta.
- Non ager daitezke? Komunikabideetan nonahi: irratian (kronika), egunkarietan (iritzi artikulua, irakurlearen txokoa), aldizkarietan, interneteko foroetan...
- Egitura:
 - ★ Sarrera
 - ★ Tesia (bukaeran ere jar daiteke): egileak gaiaren inguruan duen jarrera edo iritzia.
 - ★ Aldeko argudioak: tesia defendatzeko emandako arrazoiak.
 - ★ Kontrako argudioak: tesiaren aurkako iritzia.
 - ★ Kontrako argudioak idargabetzeko argudioak.
 - ★ Ondorioa: tesiaren berrespena da.
- Ezaugarri nagusiak:
 - ★ Iritzia adierazteko aditzak eta moduak ageri ohi dira: uste izan, pentsatu, iritzi, nire iritziz, nire aburuz...
 - ★ Mendeko perpausak ugariak dira, batez ere kausa-ondoriozkoak.
 - ★ Testu-antolatzaileen erabilera:
 - Azalpenak emateko: hori argitzeko, alegia, hain zuzen ere, izan ere...
 - Arrazoiak gehitzeko: era berean, honekin batera, halaber, baita ere, batetik... bestetik, gainera...
 - Arrazoiak kontrajartzeko: hala ere, dena dela, dena den, nolana ere, baina, -(e)n arren, nahiz eta, baizik, baino...
 - Ondorioa ateratzeko: horregatik, hori dela eta, beraz, hortaz, ondorioz, laburbilduz, horrela...
 - ★ Datu objektiboen eta adibideen erabilpena argudioak indartzeko.

TESTU-ANTOLATZAILE OROKORRAK:

Hasierakoak

Hasteko,
Lehenengo eta behin,
Ezer baino lehen,
Ezeri ekin baino lehen,
Bazen behin
Lehen-lehenik,
...z hitz egin behar dudalarik,
Sarrera gisa esango dugu ...

Ordena

Alde batetik, ... Bestetik,
Ildo beretik,
Era berean,
Halaber,
Lehenik.../ bigarrenik, ...
(Arestian) esan bezala,
(Gorago) esan bezala,
Lehenengo hariari jarraituz,
Gauzak horrela,
Horiek horrela,
Bai... bai
Ez... ez

Idea bat aurkezteko

-ri dagokionez,
... dela eta, komeni da esatea ...
Oro har,

Jarraipena

(Honen) ondorioz,
Horren haritik,
Hari beretik,
Era berean,
Bigarrenik,
Gero,
Honen ostean,
Hau (ikusi) eta gero,

Kontrakotasuna

Baina
Dena dela, / Dena den,
Hala (eta guztiz) ere,

Adibideak jartzeko

Adibidez,
Esate baterako,
Hau da,
Ikus, adibidez, -ren kasua: ...
Kasu (bat aipatzeko ...)
Hori erakusteko, aipa dezagun...

Arrazoitzeko

bait-
... -(e)lako
-(e)la eta
-(e)la bide
-t(z)eagatik
Horregatik
Izan ere,
Hori dela eta,
Horrela, ba,
Beraz,
Hortaz,

Indartzea

Aipatu bezala,
Aipatu dugunez,
Berrito esanda,
Beste era batera esanda,
Zehatzago esanda,
Hobeto esanda,
(Gorago) esan bezala,
Are gehiago,
Gainera,
Kontuan hartu,
gainera,

Onarpena (ziurtasuna)

Ez dago dudarik...
Seguruenik
Ziur aski
Zer esanik ez
Egia da... -(e)la
Dударik gabe
Zalantzarik gabe
Argi dago (e)la
Bistan da (e)la
Beharrezkoa da garbi uztea

Edozein modutan ere,
Edonola ere,
Nolanahi ere,
Esanak esan,
Hori(ek) gorabehera,
..., ordea,
..., berriz,
..., aldiz,

Aipamenak; iritziak emateko

(r)en arabera,
Askoren / Batzuen iritzi,
... (r)en ustez,
(r)en esanetan,
Diotenez,
Antza denez,
Dirudienez,
Badirudi... -(e)la
...(e)la dirudi
Dakigunez,
Irakurri dugunez,

..., noski / ..., jakina

Bukaerakoak eta ondorioak

Amaitzeko, / Bukatzeko,
Amaiera bezala,
Aurreko guztia (laburbilduz,
Ondorio gisa,
Amai dezagun esanez (e)la
Azkenik, zera:...
Laburbilduz,
Hitz gutxitan (esateko):...
Horrenbestez, zenbait ondorio atera
daitezke: 1... 2... 3...

Idea berriak txertatzeko

Ez hori bakarrik,
Bestalde / Beste aldetik
Baita ... ere
Baina, bestetik,
... ere bai
ez ezik ... ere
Egia da, hala ere,
Izan ere,
(Horrez) gain,